



Landeta Burdin Lanaken sorreratik euskararen hautua egin bagenuen ere, hobetzekoak genituela jakitun izanik, 2007an euskara-plana martxan jarri genuen. Diagnostikoa egin ondoren, hobetzekoak identifikatu eta helburuak finkatu genituen. Horrez gain, modu naturalean egiten genituenak errotzeko eta atzerapausoak ekiditeko, 2012an, hizkuntza-politika onartu zuen Landeta Burdin Lanakeko Zuzendaritza Batzordeak.

Hizkuntza-normalizazioan egindako ibilbidearen erakuslea da 2019an goi-mailako / urrezko Bikain ziurtagiria lortzea.

Bikain, Euskararen Kalitate Ziurtagiria

BIKAIN Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da. Esparru sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzen du. Izen ofiziala hauxe da: BIKAIN, Euskararen Kalitate Ziurtagiria.

Ziurtagiria eskuratu ahal izateko erakundeak ebaluazioa jaso eta gainditu behar du. Ebaluatzaileek Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) jasotako adierazleak aztertuko dituzte euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzeko. EMEk bi ardatz ditu, eta lehen mailako 6 elementu:

1. ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA

1. Erakundearen irudia
2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak

2. ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA

3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak
4. Pertsonen kudeaketa
5. Kanpo-harremanak
6. Kudeaketa-sistema

Bikain ziurtagiriak hiru maila ditu: Oinarrizkoa (beltza), Tartekoa (zilarra) eta Goi mailakoa (urrea)